

ION GOIKOETXEA MAIZA.—*Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oteo* (Poeta bilingüe alavés del siglo XVIII-XVIII. mendeko arabar euskal-erdal olerkaria. (1696-1773). A modo de introducción. Poesías castellanas. Bizitza olerkiak. Euskal olerkiez saiakera. Diputación Foral de Alava —Arabako Foru Aldundia. Academia de la Lengua Vasca—Euskaltzaindia. Vitoria-Gasteiz, 1983.

Liburu honek badu bere garrantzia. Espainiako Euskal Herrian euskarazko literatura, literatur mugimendu bezala, oso berandu hasi zen, Frantziako Euskal Herrian baino bi mende geroago. Han XVI.ean eta hemen XVIII.ean. Larramendi izan zen lehenbultzada eman ziona eta nonbait ikustekorik izango zuen bere garai eta bere ordenako zen Gamiz-engan ere. Baina, garai hartakoa izateaz aparte Araban euskara galzorian zegoen toki batekoa genuen Gamiz eta horrek ere bere balioa ematen dio historiari eta linguistikaz.

Euskarazko bertsoak, liburu hortan, zoritxarrez guti dira, erdaraz agertzen duen ugaritasunaren ondoan. Euskarazko hohiek sei sailetan banatzen dira eta beren berri eman zigun Goikoetxea Maizak *Egan* aldizkari hontan (1968. urteko alearen 3-5 orrialdeetan). Geroago ordea, euskarazko parte guzi hori agertu zuten J. Goikoetxea Maiza eta E. Knörr-ek *Euskera* aldizkarian (XIX, 1974, 167-230 orr.).

Agiri denez, Gamizek erdaraz idazten zituen bertsoak, baina norbaitek tentatu zuen euskaraz ezinez eta orduan paratu zituen «Dabilcenchoac» hamazazpi bertsoz osatzen dena, honako biokin hasiaz:

*Erderaz eztuzu nay  
ene viotza  
euzqueraz copla eguiten  
eztut nic lotza  
ycuzco deugu  
albadaygu eguin zerbait  
nola beardegu.*

*Gaizqui ba doaz ere  
orra euzqueraz  
ifin naiz au eguiten  
neure bildurraz  
eguizu farre  
gaizqui mintzacenbadut  
lotzaric bague.*

Mitxelenaren hitzaurrea daroa, Gamiz sabandoarraren euskarari buruz zenbait ohar eginaz. Gamizen bertsoarik gehienak jostakorrak dira, behar bada horregatik erabiltzen zituen irudi eta letra-jokoak. Era horrek Ferdinand de Saussure gogorazten dio Mitxelenari, neri ordea Athanasius Kircher bere *Oedipus Aegyptiacus* (Roma, 1652-1654), *Musurgia Universalis* (Roma, 1650) eta *Turris Babel* (Amsterdam, 1679) obretan, zeren garaia-gatik baliteke Gamizek lan horietakoren baten berri jakitea.

Historiaz, toki-izenez, ez-izenez eta abar, erdarazko partean ere berri interesgarri asko ematen ditu. Zer esanik ere ez bere sorterri Sabando eta ingurukoak eta bera bizitu zen Nafarroa partekoak, Iruñea, Lizarra, Tafalla eta abar.

Liburu atsegina da eta Jon Goikoetxea Maizak oso ondo estudiatzen du, liburuan zehar irakurleari adierazpenak eta argibideak emanaz.

*J. S. M.*